


## Basoak berreskuratzeko langileak

**A**tta *sexdens* izeneko inurria da ondoko argazkian ikus dezakezuna. Amazoniako nekazarien etsai amorratua da inurri hori, uztak txikitu egiten baitzkie. Aseezina diru-



Atta *sexdens* izeneko inurria uste baino lagungarriagoa gerta daiteke basoen ustiapenaren ondorioz baliabiderik gabe geratu diren lursailak berreskuratzeko.


di inurriak eta basoetako landareak ditugustukoenak. Nekazariarik makina bat trikimalu erabili dute inurria akatzeko, baina alferrik izan dira ahalegin guztiak orain arte. Inurriak bere burua babesteko mekanismo harrigarriak erabiltzen ditu eta espeziearen iraupena ezezik, ugalketa ere ziurtatu egiten omen du. Alabaina, gaitasun horri esker Amazoniako ohiana babesterik izango dela uste du Brasilgo eta EEBBetako ikerlari-talde batek. Atta *sexdens* izeneko inurria izan ere, uste baino lagungarria-

goa gerta daiteke basoen ustiapenaren ondorioz baliabiderik gabe geratu diren lursailak berreskuratzeko. Biologo horien iritziz, inurriak lurzuaren konposizio fisiko eta kimikoa aldarazten ditu eta era horretara lurra behar dituen nutrientiak erakartzea ahalbidetzen du.

## Zaldi basatiak, legenda hutsa baino gehiago

**B**ritainia Haundian dauden zaldi basati bakarrak dira ondolan ikus ditzakezunak, Billy eta Sicaron izenekoak. *Equus przewalskii* familiako kideak dira eta ekainaz geroztik, Hampshiretik gertu bizi dira, Britainia Haundiko Armadak bertan duen babes-gunean. Horri esker, bere aurrekoak antzinean bizi izan ziren bezala haziko dira zaldi horiek. Halaber, ez da hori ikerketa-proiektuaren asmo

Britainia Haundian dauden zaldi basati bakarrak dira ondolan ikus ditzakezunak, Billy eta Sicaron izenekoak.



bakarra, biologoek zaldi basatien harremanak eta ugalketarako behar dituzten baldintzak aztertu ahal izango baitituzte. Izan ere, espeziearen iraupena ziurtatuko lukeen ezagutzarik gabe, bi zaldi horiek azkenak lirateke forma basatian. Hori dela eta, zaldi basatien ugaltzeko behar diren baldintzak ikertze-ari ekin diote Marwell parke zoologikoko biologoek.


## Lehenago lepotik burua

**M**arfilaren salerosketa erabat debekatu zenetik bost urte iragan dira jadanik. Aitzitik, egoerak larria izaten segitzen duela baieztatzen dute azken datuek. Afrikako herrialde gehienetan animalien babeserako aurrekontua gero eta txikiagoa da eta, ondorioz, duela bost urte finkatu ziren laguntza-egitasmoak gauzatzerik ez dute izango.



Afrikako herrialdeek kanpo-laguntzak eskatzen dituzten bitartean, legez kanpoko merkatuetan gero eta errazagoa da marfila aurkitzea. Halaber, gero eta erosle gehiago dago marfilaren zain.

1990. urteaz geroztik, erdira etorri da Afrikako herrialdeek elefanteen babes-egitasmoetarako bideratu ohi duten aurrekontua. Zenbait kasutan, ordea, aurrekontu horien murrizketa %90ekoa izan dela salatu dute talde ekologistek. Horren ondorio zuzena marfilaren legez kanpoko trafikoa hedatu izana da. Nazioarteko erakundeek finkatu zituzten laguntza-egitasmoak betetzerik ez dagoenez, elefanteak ehi-zatzen dituzten legez kanpoko taldeek inolako eragozpenik aurkitu gabe zeharka dezakete Afrika osoa. Elefanteen letaginetatik ateratzen den marfila da ehiztari horien sari preziatua. Afrikako herrialdeek kanpo-laguntzak eskatzen dituzten bitartean, legez kanpoko merkatuetan gero eta errazagoa da marfila aurkitzea. Halaber, gero eta erosle gehiago dago marfilaren zain.



Azken bi urteetan Gabongo eta Malawiko elefante-populazioa %30 gutxiagotu dela diote natur-taldeek. Datu horiek orain arteko neurriek ez dutela espero zen emaitza lortu eta, ondorioz, debekuari buruzko hausnarketa sakonagoa egin behar dela baieztatzen dute.

### Soinua itsasoan

**K**aliforniako La Jolla ikerketa-zentruko ikerlariek ozeanotako tenperatura etengabe igotzen ari dela diote. Itsasoan soinu ohi baino azkarrago hedatzen dela frogatuko balute, beroketaren teoria onartuta geratu-ko litzatekeela uste dute, horixe baita teoria horren frogapena. Iaz egin zuten soinuaren hedapena neurtuko

Itsasoan soinu ohi baino azkarrago hedatzen dela frogatuz ozeanotako tenperatura igo egin del demostratu nahi dute La Jollako ikerlariek



duen esperimenturako eskabidea, baina Kaliforniako erakundeek talde ekologisten haserrea baretu behar izan dute ikerlarien eskaria onartu baino lehen, iskanbila handia eragin baitu asmo berriak. Funtsean itsasoko tenperaturaren eta soinu-propagazioaren artean erlazio zuzena dagoela frogatu nahi dute ikerlariek: zenbat eta altuagoa izan tenperatura, orduan eta azkarrago zabaltzen da soinu-a. Horretarako 195 dezi-beliotako sei bonbak jaurti nahi dituzte itsasoan aste berean, soinu horren propagazioa une desberdinetan aztertzeko asmoz. Talde ekologisten iritziz, bonba horiek sorraraziko duten soinu-propagazioak noraezean utziko ditu soinu-bidezko komunikazioa erabiltzen duten animaliak. Izurdeen kasua bereziki kezagarria da talde ekologisten iritziz, ikerketa-zentruaren inguruan izurde asko dagoelako eta esperimentuak animalia horien entzumena erabat honda dezakeela uste dutelako.

### Erlojuaren kontrako ikerketa

**K**urilak Irletako bioaniztasunaren egoera aztertu nahiko lukete Washington-go Unibertsitateko biologoek. Errusiako gobernuak iragarri berri duenez, hurrengo urteotan Irlak jendez bete nahi dituzte eta



horretarako bertara joan nahi duten errusiarrei pizgarri bereziak ematen hasi da. Horrek arriskuan jar lezake ikerlari amerikarrek orain dela hiru urte abiarazi zuten ikerketa-proiektua. Washingtongo ikerlariek 30.000 animali eta landare-espezie zerrendatu dituzte jadanik, horietarik 40 orain arte ezezagunak zirelarik. Biologoek iragarri dutenez, hurrengo bi urteak erabakiorrak izango dira Kurilak Irletako bioaniztasunari buruzko ikerketak biribildu ahal izateko. Orain arte bildutako datuez izan ere, osoko azalpena egin asmo dute eta horretara-

rako zenbait espezieen bilakaera aztertzea ezinbestekoa da. Errusiako gobernuak bertara eraman nahi duen jendezta hori egin baino lehen iritsiko balitz ordea, ikerketa-proiektua bertan behera utzi beharko lukete. Kurilak irlez osatutako katea luzea da, Kamtxatka-tik Hokkaido irlaraino zabaltzen dena. 1945ez geroztik Errusiako artxipielagoa da, baina Japoniak hegoal-

Biologoek iritziz, errusiarren eta japoniarren arteko liskarrek Kurilak Irlei buruzko ikuspegi politiko hutsa hedarazi dute zientzilarien artean eta artxipielagoaren balio biologikoaz ez dela inor arduratu salatu dute.

doko irlen jabegoa aldarrikatzen du. Biologoek iritziz, errusiarren eta japoniarren arteko liskarrek Kurilak Irlei buruzko ikuspegi politiko hutsa hedarazi dute zientzilarien artean eta artxipielagoaren balio biologikoaz ez dela inor arduratu salatu dute. Edonola ere, ikertzen utz dezaten da oraingoz eskatu duten gauza bakarra.

